



26-27 DENBORALDIRAKO GAZTE ABONOA ESKURATZEKO OINARRI OROKORRAK

Izena emateko epea: maiatzaren 26etik (asteartea), 2026ko ekainaren 4ko (osteguna) 14:00ak arte, Klubak bere kanal ofizialetatik asteartean (10:00etan) zabalduko duen estekaren bitartez (izena emateko hurrenkerak ez du beste aukerarik ematen plaza bat lortzeko).

Inskripzio-arauak: banaka edo gehienez ere 4 pertsonako taldeak.

Izena emateko modalitateak: bi modalitate egongo dira: bat, bazkide ez direnentzat, eta bestea, Gazte Abonoa denboraldi baterako izan nahi duten gazte bazkideentzat.

Bazkideek ezin izango dute lehenengo modalitatean izena eman. Talderen batean bazkideren bat izena emanda badago, taldetik kenduko da, eta taldeko gainerako kideek zozketan parte hartuko dute.

Zozketa: 2026ko ekainaren 5a, ostirala (izena eman dutenak 2. 087 plaza baino gehiago badira – edo 225 baino gehiago, bazkide gazteen kasuan –)

Lehentasan-irizpidea: Lehentasuna izango dute lehenengo modalitatearen esleipenean (edo zozketan, hala badagokio) Club Athleticeko kide diren edo inskripzio-epa amaitu baino lehen izena ematen duten gazteek, eta Club Athleticeko kide izaten jarraitu beharko dute kontratatu beharreko Gazte Abonoaren indarraldian. Ondorioz, Club Athleticeko kide izateari uzteak lehentasuna galtzea ekarriko du automatikoki eta Gazte Abonoaren epealdi barruan ematen bada, Gazte Abonoa galtzea ere ekarriko du automatikoki, Club Athleticeko kide izateari utzi den egunetik aurrera.

Bigarren modalitatearen kasuan, ez dago lehentasunik bazkideen artean.

Adina: 14 eta 28 urte bitartean (1997ko maiatzaren 25etik 2012ko abuztuaren 16ra bitartean jaiotakoak, biak barne).

Prezioa: 410,80 €

Bazkide gazteen modalitatearen kasuan, irabazleen eserlekua Klubari lagata geratuko da denboraldi batez, eta ondorio guztietarako Gazte Abonoa izango da, bazkide estatusa galdu gabe. Beraz, Klubak eserlekuko prezioaren eta Gazte Abonoaren prezioaren arteko aldea (410,80 €) itzuliko du.

Kokapena: Ipar Beheko Harmaila (Herri harmaila)

Plaza-kopurua: 2.087 bazkide ez direnentzat eta 225 bazkideentzat

Bazkideentzako kopurua betetzen ez bada, geratzen dena bazkide ez direnentzako izango da eta alderantziz.



Abonuan sartzen diren partidak:

- Gizonezkoen lehen taldea: 26-27 LaLiga EA Sports-eko etxeko partida guztiak.
- Emakumezkoen lehen taldea: Liga F-ko eta Kopako etxeko partida guztiak, Lezaman zein San Mamesen*.
- Bilbao Athletic: Ligako (Lehen Federazioa) etxeko partida guztiak, Lezaman*.

* Eskuragarritasuna agortu arte, txartela 0 €-ko prezioa duen sarrerarekin trukutzen da.

Abonuak sartzen ez diren partidak:

Gizonezkoen lehen taldeak San Mamesen jokatzeko dituen gainerako lehiaketetarako, Klubak salgai jarriko ditu Gazte Abonoaren 2.087 + 225 plazak. Sarrera horiek erosi ahal izango dituzte honako kolektibo hauek, faseka, eskuragarritasunaren arabera eta lehentasun-ordena honi jarraituz:

1. Club Athleticeko kide diren Gazte Abonoak (dagozkien 225 plazak)
2. Club Athleticeko kide diren Gazte Abonoak
3. Club Athleticeko kide ez diren Gazte Abonoak

Eserlekua aukeratzeko:

Eserlekuak aukeratzeko, lau adin-tarte bereiziko dira irabazleen artean (taldeen kasuan, batez besteko adina kalkulatu da taldeko kide guztien artean):

- 26 eta 28 urte bitartekoak (1997ko maiatzaren 25etik 2000ko maiatzaren 25era jaiotakoak): atearen atzean dauden erdiko blokeetan aukeratuko dute eserlekua, 107 eta 108. (Sektore horiei dagokien edukiera betetzen badute, ondoko artean aukeratuko dute, 106 eta 109).
- 22 eta 25 urte bitartekoak (2000ko maiatzaren 26tik 2004ko maiatzaren 25era bitartean jaiotakoak): 106 eta 109 blokeetan aukeratuko dute eserlekua. (Bloke hauek beteta badaude, ondoko blokeen artean aukeratuko dute, 105 eta 110).
- 18 eta 21 urte bitartekoak (2004ko maiatzaren 26tik 2008ko maiatzaren 25era bitartean jaiotakoak): 110 blokean aukeratuko dute eserlekua. (Bloke hau beteta badago, 109 blokea aukeratuko dute).
- 14 eta 17 urte bitartekoak (2008ko maiatzaren 26tik 2012ko abuztuaren 16ra bitartean jaiotakoak): 105 blokean aukeratuko dute eserlekua. (Bloke hau beteta badago, 106 blokea aukeratuko dute).

Abonua ez ordaintzeagatik ondorioak:

Abonua Klubak ezarritako epean ordaintzen ez bada, eskubidea galduko da, eta Klubak zerrendako hurrengo eskatzaileekin harremanetan jarriko da.

Talde batek ez badu taldeko kide guztientzat ordaintzen, bakarrik batzuentzat, Klubak ordaindutako zenbatekoa itzuliko du, eta abonua/k ordaindu gabe geratuko da/dira. Kasu honetan, Klubak zerrendako hurrengo eskatzaileekin harremanetan jarriko da.



Abonuaren baldintzak:

Ligako partiden %80ra baino gutxiagora bertaratzeak hurrengo denboraldiko abonua eskuratzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

Ezin izango dute Gazte Abonua kontratatu 25-26 denboraldian Gazte Abonua izan eta Ligako partiden %80ra baino gutxiagora bertaratu diren pertsonak, ezta betetze-aldian zehapen- espedienterik dutenek, ezta bazkide edo abonatu gisa kanporatuak izan direnek ere.

Abonuan sartutako partidaren batera joaterik ez badago, Gazte Abonoak Klubari bere eserlekua utzi ahal izango dio app ofizialaren bidez.

San Mameserako sarrera:

Gazte Abonua lortzen dutenek txartel digitala izango dute Athletic Cluben app ofizialaren bitartez (pertsonalak eta besterenezinak dira, ezin izango dira abonua hirugarren bati utzi).

Athletic Clubek abonatu bakoitzari ezkutuko zenbaki digitalak emango dizkio txartel digitala gaitzeko eta San Mamesera sartzeko.

Bazkide gazteen modalitatearen berezitasunak:

Nahiz eta Gazte Abonoaren taldeko kide izan, San Mamesera bertaratzea kontuan hartuko da Kopako finalerakosarreraren zozketan, kasu balitz, gainerako bazkideak bezala.



Erosketarako baldintzak:

Gazte Abonoa eskuratu nahi dutenek Athleticek helaraziko duen online prozeduraren bidez izen abizenak, NANa, jaiotze-data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa erraztu beharko dituzte.

Pertsona bakoitzeko inskripzio bakarra onartuko da. Gehiago egonez gero, lehenengoa nagusituko da, baten bat talde batekoa den edo ez kontuan hartu gabe.

Gazte Abonoa pertsonala eta besterenezina da, eta titularra da erabilera egokiaren arduraduna. Erabiltzaileek onartzen dute unean-unean indarrean dauden egiaztapen kontrol guztiak eta Klubari emandako datuak egitea.

Hirugarren batek sarbide-dokumentua erabiltzeak esparrura sartzea edo handik kanporatzeko debekua dakar, bai eta haren titularrari dagokionez ere, klubaren diziplina araubidea aplikatzeak izan ditzakeen beste diziplina-ondorio batzuk. Ondorio berberak izango ditu Gazte Abonoa izateko Klubari datu okerrak ematen dizkionak.

Eskuratzaillearen konpromisoak

Gazte Abonoa Abonatuen eta Kirol Esparruetan Sartzeko eta Egoteko Erregelamenduari lotuta egongo da. Araudi horrek Athletic Clubeko abonatuari aplikatu beharreko araubidea arautzen du, eta Athletic Clubeko kirol-esparruetan sartzeko eta egoteko arau orokorrak ezartzen ditu.

Eskuratzailleak konpromisoa hartzen du Kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 6. eta 7. artikuluetan ikusleentzat ezarritako sarrera- eta egonaldi-baldintzak betetzeko, eta lege horren 2.1 eta 2.2 artikuluetan aurreikusitako ekintzarik edo jokabiderik ez egiteko konpromisoa, bai eta kirol-esparruaren barne-araubideko arauak errespetatzeko ere.

Animazio-harmailetan erakusten diren animazio-materialak, dagozkien lege-baldintzak betetzeaz gain, Klubak onartu beharko ditu alde aurretik. Peña, elkarte edo zale-talde bat aipatzen edo identifikatzen dutenean, kolektibo hori Klubeko Jarraitzaileen Jardueren Erregistro Liburuan behar bezala inskribatuta egon beharko da, eta haren erabileraren arduraduna egotea.

Eskuratzailleak taldeari etengabeko babesa iraunkorra emateko konpromisoa hartzen du, betiere aurkariaren taldearekiko eta zaleekiko errespetu osoz, eta kirol-jokabide eredugarriarekin, erasoko ekintzarik edo kanturik egin gabe. Era berean, konpromisoa hartzen du animazioa oztopatzen edo zailtzen duen edozein adierazpen/egintza mota ez zuzentzeko edo babesteko, bai eta aplikatu beharreko araudia errespetatzeko eta betetzeko ere.

Eskuratzailleak berariaz konpromisoa hartzen du Klubeko langileek edo segurtasun



zerbitzuek unean-unean adierazitako jarraibideak betetzeko eta araudia urratzen duten pertsonak identifikatzeko lana ez oztopatzekeo.

Era berean, ez du Klubaren edo haren bazkideen interesei kalte egin diezaiekeen ekintza zehagarririk egingo.

Eskurtaizaleak berariaz onartzen du arau hauek ez betetzeak dagozkion zehapen-neurriak aplikatzea ekar dezakeela, besteak beste, Gazte Abonua izaera galtzea eta etorkizunean berriro eskuratzeko edo Klubeko bazkide izateko desgaituntza.

San Mamesera sartzeko baldintzak:

- I. Debekatuta dago:
 - a) Edozein motatako armak edo horien ondorio berak eragin ditzaketen objektuak sartzea, eramatea edo erabiltzea, bai eta bengalak, petardoak, lehergaiak edo, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak edo korrosiboak ere.
 - b) Indarkeriara bultzatzen duten mezuak dituzten pankartak, banderak, sinboloak edo beste seinale batzuk sartzea, erakustea edo prestatzea, edo pertsona bat edo talde bat mehatxatzea, iraintzea edo umiliatzea arrazagatik edo jatorri etnikoagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik, sexuagatik edo sexu-orientazioagatik.
 - c) 2. artikuluko lehenengo eta bigarren paragrafoetan indarkeria, arrazakeria, xenofobo edo intolerantziatzat deskribatutako jokabideak izatea.
 - d) Kirol-esparrura edari alkohol-dunen, droga toxikoen, estupefazianteen edo substantzia psikotropikoen eraginpean sartzea.
 - e) Kirol-esparrura sartzeko titulu balioudun gabe sartzea.
 - f) Erregelamenduan zehazten den beste edozein jokabide, betiere indarkeriazko jokabideak, arrazistak, xenofoboak edo intoleranteak sustatzen lagun badezake.
2. Kirol-lehiaketa eta -ikusketarako joaten diren ikusleek eta bertaratuek aurreko paragrafoan aipatutako baldintzak egiaztatzekeo beharrezko kontrolak egin beharko dituzte, eta, bereziki, honako hauek:
 - a) Telebista-zirkuitu itxien bidez grabatuak izatea kirol-esparruaren inguruetan, sarbideetan eta barruan.
 - b) Aurreko ataleko a) eta b) puntuetan jasotako betebeharrak egiaztatzekeo miaketa pertsonalak egitea.
3. Sartzea eragotziko zaio aurreko atalean adierazitako portaeretakoa bat duen edozein pertsonari, bere jarrera oneratzeko ez duen artean edo kanporatua izatekeo arrazoiren batean sartuta badago. Athletic Clubek sarrera eskubidea gordetzen du eta, aurrekoaren arabera, ikusleei kirol-esparrura sartzeko galarazi ahal izango zaie edari alkohol-dunak, armak, halakotzat erabil daitezkeen objektuak, bengalak edo antzekoak



sartzeagatik, edo edari alkoholdunen, droga toxikoen, estupefazianteen edo substantzia psikotropikoen eraginpean egoteagatik. Zehazki, lehen aipatutako 203/2010 Errege Dekretuaren 20.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, jasota geratzen da kirol-esparrua bertaratuen eta parte-hartzaileen segurtasunerako zaindutako bideo-eremua dela, eta galarazi egiten dela kirol-esparrura sartzea edo bertan egotea, honako arrazoi hauengatik, gutxienez:

- a) Liskar, istilu, borroka nahiz desordena publikoetan parte hartzea.
- b) Honako hauek sartzea, eramatea edo erabiltzea: armak, edozein motatakoak, nahiz haien ondorio berak eragin ahal dituzten objektuak, hala nola, ziztatzaileak, edo ebakitzzaileak jaurtigai gisa erabili ahal direnak, hala nola, ontzi zurrunetako elikagaiak, botilaratutako edariak edo horien ontziak.
- c) Bengalak, petardoak, lehergaiak edo, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak edo korrosiboak eta gailu piroteknikoak sartzea edo edukitzea.
- d) Edari alkoholdunen, estupefazianteen, psikotropikoen estimulatzaileen edo antzeko sustantzien eraginpean egotea.
- e) Edozein motatako edari alkoholdunak sartzea edo saltzea, baita sustantzia estupefazianteak, psikotropikoak edo antzekoak.
- f) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten mezuak dituzten pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk sartzea, erakustea edo prestatzea, baita aipatu mezuak direla-eta, pertsona eta pertsona-talderen bat bere arraza- nahiz etnia- jatorriagatik, erlijioagatik zein sinesmenengatik, desgaitasunagatik, adinagatik, sexuagatik edo sexu-joeragatik mehatxatua, iraindua edo umiliatua sentiaraztea.
- g) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten abestiak, adierazpenak edo soinuak egitea edo haietarako jarrerak izatea, edo pertsona nahiz pertsona-talderen bat bere arraza zein etniagatik, desgaitasunagatik, erlijioagatik, sinesmenengatik, sexuagatik edo sexu-joeragatik, umiliatu asmo dutenak.
- h) Jokalekuan sartzea.
- i) Edozein kirol-esparrutara sartzeko debekuekin zehatua izana, zehapena bera iraingitzen ez den bitartean.

Eta ildo berean, kirol-esparruan egoteko baldintzak, lehen aipatutako 19/2007 Legean ezarritakoak izango dira, eta bereziki:

7. artikulua. Kirol-esparruan egoteko baldintzak.

1. Ikusleak kirol-esparruan, kirol ospakizunetan egon ahal izateko baldintzak dira indarkeriazko ekintzak ez egitea, ez arrazistak, ez xenofoboak, ez intoleranteak, ez



haietara bultzatzen dutenak, Lege honetako lehenengo eta bigarren ataletan definitutakoaren arabera; bereziki:

- a) Inor ez erasotzea, ez eta ordena publikoa asaldatzea ere.
 - b) Ez egitea abesti, soinu edo kontsigna arrazistak edo xenofoboak, ez intolerantziakoak, ez indarkeriara edo terrorismora bultzatzen dutenak, ez Konstituzioaren beste edozein urraketa dakartenak.
 - c) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk ez erakustea, ez eta ere mezu arrazista, xenofobo edo intoleranteak dituztenak ere.
 - d) Inolako objeturik ez botatzea.
 - e) Jokalekuan baimenik gabe ez sartzea.
 - f) Kirol-ikuskizunak egiten edo garatzen ari diren instalazioetan edo esparruetan ez izatea, aktibatzea edo jaurtitzea ondorio berberak eragin ditzaketen armak edo objektuak, ez eta bengalak, petardoak, lehergailuak edo, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak edo korrosiboak ere.
 - g) Behar bezala aurreikusitako segurtasun-baldintzak eta erregelamendu bidez zehazten direnak betetzea.
2. Era berean, hurrengo hauek dira, ikusleak kirol-esparruan egon ahal izateko baldintzak:
 - a) Ez hartzea alkohol-dun edaririk, droga toxikorik, estupefazienterik, ez sustantzia psikotropikorik.
 - b) Norberak kirol-esparruan sartzeko duen txartelari dagozkion eserleku mota eta lekua hartzea, baita ere txartel hori erakustea segurtasun-kidego eta -indarrek eta antolatzailearen edozein langilek edo laguntzailek eskatutakoan.
 - c) Kirol-esparruko erregelamenduak eta/edo barne-araubidea betetzea.
 3. Aurreko paragrafoetan deskribatutako betebeharrak betetzen ez badira, segurtasun-indarren aldetik berehala kanporatuko dira kirol-esparrutik, hargatik eragotzi gabe gerora ezar daitezkeen zehapenak ezartzea.
 4. Kirol-lehiaketa eta -ikuskizunetako ikusleek eta bertaratuek kirol-esparrua modu baketsuan utzi beharko dute, eta inguruak utzi, segurtasun-arrazoiengatik edo lehenengo paragrafoan aipatutako iraupen-baldintzak ez betetzeagatik hala eskatzen zaienean.

Estadiotik alde eginez gero, ezin izango da estadiora itzuli, nahiz eta sarrera berriro erakutsi.

Klubak partidaren irudi eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak beretzat gordetzen ditu. Estadiora bertaratzen diren pertsonen publikoaren parte gisa grabatuak izateko baimena ematen dute, euren irudia doan eta ondorio guztietarako Athletic Cluben esku utziz.

Guztiz debekatuta dago partidaren argazkiak ateratzea, filmatzea edo grabatzea Klubaren berariazko baimenik gabe, eta laserrekin edo antzekoekin sartzea, baita animaliak sartzea ere, Klubak baimendutakoak izan ezik (gida-txakurrak).



Kirol Esparruetan Sartzeko eta Egoteko eta Abonatuaren Erregelamendua aplikatzeko klausulak

1. KONTRATU-ARAUBIDEA

- 1.- Abonatuaren eta Athletic Cluben arteko lotura kontratu-izaerakoa da.
- 2.- Abonatu izaera eskuratzeak oinarri hauek erabat eta inolako erreserbarik gabe onartzea adierazten du.

2. ABONATUAREN IZAERA GALTZEA

Abonatu izaera galdu egiten da:

- a) Norberaren borondatez, betiere Klubari baja idatziz jakinarazten bazaio. Jakinarazpen hori bitarteko elektronikoen bidez ere egin daiteke, Programaren Oinarrietan alde aurretik ordaindutako zenbatekoei dagokienez ezarritako ondorioekin.
- b) Aplikagarri den Programaren oinarrien arabera abonatu-kontratuaren iraupena amaitzen denean.
- c) Abonatu-kontratua suntsiarazten denean, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- d) Abonatuaren pertsonaren heriotzagatik, egoera pertsonala eta besterenezina bada.
- e) Oinarri hauetan berariaz aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

3. ABONATU-KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

1.- Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, berezkoak bete dituen aldeak eskubidea izango du betebeharra bete dadila eskatzeko edo abonatu-kontratua suntsiaraztea sustatzeko, Kode Zibilaren 1124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Funtsean, Athletic Clubek berariazko ahalmena izango du Abonatuarekin abonatu-kontratua suntsiarazteko, besteak beste, honako kasu zehatz hauetan:

- a) Abonatu batek Klubaren instalazioetara sartzeko eta/edo bertan egoteko edozein baldintza ez betetzea, onartzen den kirol-instalazioen barne-araubidea barne.
- b) Txartel digitala edo sarbide-dokumentua hirugarren batek erabiltzeko lagatzea, baimenduta ez dagoenean.
- c) Administrazio- edo zigor-ebazpen bidez zehatzea, edozein kirol-esparrutara sartzeko debekatuz, jokabide bortitz, arrazista, xenofobo eta intoleranteengatik.
- d) Klubari datu okerrak ematea abonatu izateko.

3.- Abonatu-kontratua Abonatuari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik suntsiarazten bada, Abonatuak berak automatikoki galduko ditu oinarri hauetan ezarritako eskubideak, eta Athletic Club-i ordaindutako prezioa ezin izango da itzuli, abonatuaren epea amaitu barik



egon arren.

4.- Nolanahi ere, abonatu-kontratua suntsiaraztea bateragarria izango da Klubari edo hirugarrenei Abonatuak bere ekintzekin eragindako kalteak itzultzeko edo kalte-ordainak emateko eskakizunarekin.